



Covid-19aren ondorioz, egungo egoeraren baldintzetara egokitu behar izan gara Ludotekan bertan ere. Horregatik, aurtengo Iratxo Ludotekako zerbitzua burutu ahal izateko, Osasun Sailak ezarritako gomendio eta segurtasun neurriak aintzat hartu eta berariazko protokolo bat sortu dugu gure espazioa eta jarduera kontuan hartuta. Guztion konpromezua beharrezkoa izango da ondorengo prebentzio-neurri eta higie-ne-arauak betetzeko.

PREBENTZIO-NEURRIAK

1. Aforoa murriztuko dugu berezko edukieraren %60ra jaitsiz. Beraz, taldekatze txikiagoak egitea ahalbidetuko du.
2. Musukoa ez da derrigorrezkoa izango (6 urtetik aurrerakoentzat bai), baina bai gomendagarria.
3. Sarreran tenperatura hartu eta 37,1°C tik gorako tenperatura badu, ezingo du jardueran parte hartu. Beraz, gurasoei jakinarazi eta hauen ardura izango da umearen bila etorri eta Osasun Zentroarekin harremanetan jartzea.
4. Sarreran gel hidroalkoholikoz garbituko dira eskuak.
5. Saioan zehar ere, eskuak maiztasunez garbituko dira ur eta xaboiarekin.
6. Segurtasun distantzia mantentzen edo kontaktu fisikoak saihesten saiatuko gara.
7. Bentilazioa eta garbiketa edo desinfekzioaz (espazioa zein materiala) arduratuko gara, saio bakoitzaren ondoren.
8. Ludotekarako ur botila propioa eta aldatzeko arropa (barruko arropa) ekarri beharko du parte-hartzaile bakoitzak, materialak partekatzea ekiditeko.
9. Sarrera irteeretan pilaketak saihesteko laguntzaile bakarra etortzea gomendatzen da.
10. Umea egunen batean etorri ezean, hutsegitearen arrazoia azalduko zaio monitoreari, bertaratuen erregistro bat egingo delako. Aurrez etorriko ez dela jakinez gero, hezitzaileoi jakinaraztea eskertuko genuke.
11. Gurasoek neurri hauek irakurri eta neurriekin konprometituta daudela azaltzeko, parte-hartze baldintzak onartzen dituztela eta informazioa emateko derrigortasuna dutela onartzeko dokumentu bat sinatu beharko dute onespina emanez.





LAPAZORRI aisialdi elkarte



IRATXO
LUDOTEKA

PROTOKOLOA

12. Hasierako izen-ematean baimendutako haur kopurua gaindituz gero, lehentasuna izango dute behar bereziak zein dibertsitate funtzionala dituzten eta egoera zaurgarrian dauden haurrek. Ondoren, zozketa bidez erabakiko dira gainerako parte-hartzaileak.

13. Ate ireki egunetan pilaketak ekiditeko, beharrezkoa izango da online beteko den galdetegi baten izen-ematea egunean aforoa gainditzen duten taldeak sor ez daitezen. Galdetegian datu pertsonalez gain, zein egunetan eta zein ordutan etorriko zareten aukeratu beharko duzue. Beraz, bakoitzak izen-emandako egunean etortzeko aukera izango du.

14. Behin haurra ludotekan apuntatu eman nahi denean, izena-emate orria bete eta ludotekara ekarri beharko da.

SINTOMAK EDO KASUREN BAT AGERTUZ GERO, EMANGO DIREN JARRAIBIDEAK:

- Ludotekan bertan haurren bati sintomaren bat sumatuz gero, zuzenean telefonoz deituko zaie haren gurasoei eta beste taldekideengandik banatuko da kutsatzea saihesteko asmoz musukoa jantziz. Haren gurasoei hurbilen dagoen osasun-zentroarekin harremanetan jartzeko eskatuko zaie kasua profesionalak ebalua dezaten. Bien bitartean, irekita mantenduko da ludoteka.

PCRa egin eta negatibo emango balu, ludotekako jarduerak berdin jarraituko du, ohiko moduan.

Positibo emango balu, berriz, gertuen dagoen osasun zentroarekin harremanetan jarri beharko liriateke, haiek ezarritako neurriak betez.

- Norbaitek sintomak ludotekatik kanpo pairatuz gero, berehala Ludotekako monitoreei jakinarazi beharko zaie email zein telefono bitartez, hauek beste familiak jakinaren gainean jar ditzaten eta osasun-zentroarekin harremanetan jarriko dira eman beharreko pausuak zehazteko.



Mutrikuko Udala